**5. artikulua.—*Hipotekatutako ondasuna hartu behar duen erakundearen gaineko ondrioak***

Zordunarengandik ondasuna hartu beharra duen erakundeak ezin izango du zerga-zorrak ordaintzea geroratzea edo zatikatzea eskatu, harik eta Foru Arau honen 3.1 artikuluko a) letran zehazten den pertsonak zerga-zor osoa gehi kitatzetik eta berandutza-korrituetatik eratorritako gastuak ordaindu arte. Diru kopuru hori bat etorriko da Bizkaiko Foru Aldundiak kitatutako kargarekin.

**6. artikulua.—*Ogasun eta Finantzetako foru diputatuarentzako baimena***

Ogasun eta Finantzetako foru diputatua baimendua izango da ohiko etxebizitza dela eta Aldundiak titularitatean dituen zerga-zorretatik eratorritako kargak kitatzeko, beti ere Baliabiderik gabeko hipoteka zordunak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretuaren barnean eranskin legez jasotzen den «Ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka-zorren berrantolaketa bideragarrirako Ohitura Onen Kodea» deritzonaren 3. zenbakian zehazten diren kasuetarako.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehena.—*Indarrean sartzea***

Foru Arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean eta indarrean sartu aurretik ere Foru Arau honetan xedatutako baldintzak betetzen dituzten kasuei ere aplikatuko zaie.

**Bigarrena.—*Gaitzea***

Bizkaiko Foru Aldundia gaiturik dago xedapen orokor hau garatu eta aplikatzeko behar izan daitezen xedapen guztiak emateko.

Bilbon, 2015eko urtarrilaren 13an

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,
JON ANDONI ATUTXA SAINZEK

Batzar Nagusietako Lehendakariak
ANA MADARIAGA UGARTEK

(I-188)

**Artículo 5.—*Efectos sobre la entidad obligada a aceptar la entrega del bien hipotecado***

La entidad que se encuentre obligada a aceptar la entrega del bien hipotecado por parte del deudor, no podrá solicitar aplazamiento o fraccionamiento de pago de sus deudas tributarias, en tanto la persona a que se refiere la letra a) del apartado 1 del artículo 3 de esta Norma Foral, no haya satisfecho la totalidad de la deuda tributaria, más los gastos derivados de la cancelación e intereses de demora correspondientes, que se corresponda con la carga cancelada por la Diputación Foral de Bizkaia.

**Artículo 6.—*Autorización al Diputado Foral de Hacienda y Finanzas***

Se autoriza al Diputado Foral de Hacienda y Finanzas para cancelar las cargas a favor de la Diputación Foral de Bizkaia procedentes de las deudas tributarias cuya titularidad le corresponda que recaigan sobre la vivienda habitual en los supuestos a que se refiere el apartado 3 del anexo que recoge el «Código de Buenas Prácticas para la reestructuración viable de las deudas con garantía hipotecaria sobre la vivienda habitual», contenido en el Real Decreto-Ley 6/2012, de 9 de marzo, de medidas urgentes de protección de deudores hipotecarios sin recursos.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.—*Entrada en vigor***

La presente Norma Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y resultará de aplicación a todas las situaciones que, aun habiéndose producido con anterioridad a su entrada en vigor, cumplan los requisitos establecidos en esta Norma Foral.

**Segunda.—*Habilitación***

Se autoriza a la Diputación Foral de Bizkaia para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición general.

En Bilbao, a 13 de enero de 2015

El Secretario Primero de las Juntas Generales,
JON ANDONI ATUTXA SAINZ

La Presidenta de las Juntas Generales,
ANA MADARIAGA UGARTE

(I-188)

# Foru Aldundia / Diputación Foral

## Kultura Saila

**Kulturako foru diputatuaren 343/2015 FORU AGINDUA, urtarrilaren 23koa, «Bizkaia Kirolak 2015» sarietarako deialdia egiten duena.**

Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremanei Buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7.b.6 artikuluan dio Lurralde Historikoei dagokiela, Bateango Erakundeek emandako gaien artean, kirolaren sustapena garatu eta egikaritzea.

Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 2. artikuluak dio, aginte publikoek, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, kirolaren praktika behar bezala gauzatzea bermatuko dutela. Horretarako, burutuko duten kirol politikak printzipio hauek izango ditu oinarrian:

«(…)

u) Kirola kultur osagaitzat eta gizarte-bateratzailetzat aitortzea.»

## Departamento de Cultura

**ORDEN FORAL de la diputada de Cultura 343/2015, de 23 de enero, por la que se convocan los «Premios Bizkaia Kirolak 2015».**

El artículo 7.b.6 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, establece que corresponde a los Territorios Históricos el desarrollo y la ejecución de las normas emanadas de las Instituciones Comunes en materia de fomento del deporte.

El artículo 2.3 de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del deporte del País Vasco, señala que los poderes públicos, en el ámbito de sus respectivas competencias, garantizarán el adecuado ejercicio de la práctica del deporte mediante una política deportiva basada en:

«(…)

u) El reconocimiento del deporte como elemento integrante de la cultura y como elemento de cohesión social.»

cve: BAO-BOB-2015a019

Kirola interes publikoko jarduera soziala da, eta pertsonen trebakuntza nahiz garapen integrala, beraren bizi-kalitatea eta norbanakoen nahiz taldeen ongizatea hobetzen laguntzen du.

Adiera horretan, Autonomia Estatutuak eta Euskal Herriko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legeak ezarritako eskumenen eremuan, eta, euren zuzeneko jardunaren bidez edo ekimenaren bidez, edo kirol politikaren garapeneko partaide legez, gure lurralde historikoan gorputz eta kirol alorreko jarduera bultzatzen eta sustatzen eginiko lanetan nabarmendu diren pertsonen eta erakundeen aipamen berezia egitea egokia dela uste izanik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailak «Bizkaia Kirolak» Sariak sortu zituen 2006an eta, egindako edizioetan emaitza oso positiboa izan denez, egokitzat jo du «Bizkaia Kirolak 2015» Sariak deitzea ekitaldi honetarako, helburu nagusia, berriro ere, bizitzaren alde handi bat nola edo hala kirolari eman izan diotenei ohorezko saria ematea delarik.

Hori guztia dela eta, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak, eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko Araudia onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 3ko 172/2013 Foru Dekretuak emandako ahalmenak erabilita hurrengo hau

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra**

Honako foru agindu honen bidez Bizkaia Kirolak sarien 2015. urteko ediziorako deialdi publikoa onetsi da, gure lurralde historikoan gorputz eta kirol alorreko jarduera bultzatu eta sustatzen eginiko lanetan nabarmendu diren pertsonen eta erakundeen aipamen berezia egiteko.

**«BIZKAIA KIROLAK 2015» SARIETARAKO DEIALDIAREN OINARRIAK**

**Lehena**

Bizkaia Kirolak 2015 sarietarako deialdia Bizkaiko pertsona fisiko eta juridikoei (kirolariak, entrenatzaileak, kirol agintariak, kirol taldeak, ikastetxeak, kirol federazioak...) kirolaren eremuan egin duten lanagatik jendaurrean esker ona adierazteko egin da.

**Bigarrena**

Sariak ohorezkoak izango dira; hau da, ez dute inolako ekarpen ekonomikorik izango. Beraien bidez egindako lana jendaurrean goraipatu eta horretarako antolatuko den ekitaldian alor bakoitzari dagokion ikurra emango zaie sarituei.

**Hirugarrena**

Bizkaia Kirolak 2015 sariak hurrengo kategorietan banatuko dira:

— Kirol talde edo elkartearentzako saria.
— Ikastetxearentzako edota Guraso Elkartearentzako saria.
— Kirol federazioarentzako saria.
— Kirol ibilbidearentzako saria.
— Jolas kirolaren arloan (beteranoak) egindako lana dela eta, pertsona edo erakunde bati emandako saria.
— Ezintasunen bat duten pertsonen eta pertsonentzako kirolaren arloan egindako lana dela eta, pertsona edo erakunde bati emandako saria.
— Toki administrazioko entitatearentzako saria.
— Erakunde edo pertsona babesleari saria.

**Laugarrena**

Epaimahaiak, hurrengo irizpideok izango ditu kontuan Bizkaia Kirolak 2015 sariak emateko orduan, sari bakoitzerako eskatutako berezitasunen arabera:

a) Kirol talde edo elkartearentzako saria: Kontuan hartuko dira jardueren maila zein kudeaketaren kalitatea eta kirol emaitzak.

El deporte constituye una actividad social de interés público que contribuye a la formación y al desarrollo integral de las personas, a la mejora de su calidad de vida y al bienestar individual y social.

En este sentido, dentro del ámbito competencial establecido por el Estatuto de Autonomía y la Ley 14/1998, de 11 de junio del deporte del País Vasco, y considerando oportuno el hacer expreso reconocimiento de personas y entidades que, bien por su directa actividad o iniciativa personal, bien como partícipes en el desarrollo de la política deportiva han contribuido en forma destacada a impulsar o difundir la actividad físico-deportiva de nuestro Territorio Histórico, el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, creó en el año 2006 los «Premios Bizkaia Kirolak» y tras el resultado positivo de las anteriores ediciones celebradas, considera conveniente convocar para este ejercicio los «Premios Bizkaia Kirolak 2015», cuyo objetivo principal es laurear el trabajo de quienes de alguna manera han dedicado al deporte una parte importante de sus vidas.

Por todo ello, en uso de las facultades conferidas por la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento del Territorio Histórico de Bizkaia, y por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 172/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura orgánica del Departamento Foral de Cultura,

DISPONGO:

**Artículo único**

Mediante la presente Orden Foral se aprueba la convocatoria pública de los Premios Bizkaia Kirolak, en su edición correspondiente al año 2015, para distinguir a las personas y entidades que han destacado por su labor de impulso y promoción de la actividad física y deporte en nuestro Territorio Histórico, a tenor de las siguientes:

**BASES DE LA CONVOCATORIA DE LOS «PREMIOS BIZKAIA KIROLAK 2015»**

**Primera**

Los premios Bizkaia Kirolak 2015, se convocan con el objetivo de reconocer públicamente la labor desempeñada en el ámbito del deporte por las personas físicas y jurídicas de Bizkaia (deportistas, entrenadoras y entrenadores, dirigentes deportivos, clubes deportivos, centros escolares, federaciones deportivas…).

**Segunda**

Los premios serán meramente honoríficos sin aportación económica alguna y consistirán en un reconocimiento público de la labor desarrollada y en cuyo acto se hará entrega del trofeo correspondiente.

**Tercera**

Los premios Bizkaia Kirolak 2015, se otorgaran en las siguientes categorías:

— Premio al Club o Asociación deportiva.
— Premio al Centro Escolar o Asociación de Padres y/o Madres correspondiente.
— Premio a la Federación deportiva.
— Premio a la Trayectoria deportiva.
— Premio a la persona o entidad por su labor en el ámbito del deporte recreación (Veteranos/as).
— Premio a la persona o entidad por su labor en el ámbito del deporte por y para personas con discapacidades.
— Premio a la entidad de la administración local.
— Premio a la persona o entidad patrocinadora.

**Cuarta**

Los criterios a tener en cuenta por el Jurado para la concesión de los Premios Bizkaia Kirolak 2015, atendiendo en cada caso al respectivo Premio, son los siguientes:

a) Premio al Club o Asociación deportiva : Se tendrán en consideración tanto el nivel de actividades como la calidad de gestión y los resultados deportivos

cve: BAO-BOB-2015a019

b) Ikastetxearentzako edo Guraso Elkartearentzako Saria: kontuan hartuko dira, batez ere, parte-hartzea, kudeaketaren kalitatea eta kirolen aniztasuna bezalako parametroak.

c) Kirol federazioarentzako saria: Kontuan hartuko dira jardueren maila zein kudeaketaren kalitatea, eskola kirolean izandako lankidetza eta kirol emaitzak.

d) Kirol ibilbidearentzako saria: pertsonak edo erakundeak kirol alorrean eginiko ibilbidea baloratuko da.

e) Jolas kirolaren arloan egindako lana dela eta, pertsona edo erakunde bati emandako saria: kirol munduan egindako jarduera eta jardunen ibilbidea edo curriculuma baloratuko da, kirolari beterano legez lortutako emaitzak edota jolas-kirola sustatzen egindako lana begiratuta.

f) Ezintasunen bat duten pertsonen eta pertsonentzako kirolaren arloan egindako lana dela bide, pertsona edo erakunde bati emandako saria: kirol munduan egindako jarduera eta jardunen ibilbidea edo curriculuma baloratuko da, ezintasunen bat duen kirolariak lortutako emaitzak edo ezintasunen bat duen pertsonak kirol munduan sartzeko egindako lana begiratuta.

g) Toki administrazioko entitatearentzako saria, kirolaren alde egindako lana baloratuko da.

h) Erakunde edo pertsona babesleari saria: orokorrean kirol babesletzan egindako ibilbidea baloratuko da, bereziki azpimarratuz oinarriko kirolari emandako laguntza.

**Bostgarrena**

1. Pertsona eta erakunde guztiek aurkez ditzakete hautagairen bat edo batzuk; beti ere proposamena idatziz edo posta elektronikoaren bidez (kirolak@bizkaia.net) egin beharko dute, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Saileko Kirolen eta Gazteriaren Zuzendaritza Nagusian, 2015eko martxoaren 10etik apirilaren 15eraino, biak barne.

2. Proposamenean hautagaiak saria merezi ahal izateko dituen merezimenduen zerrenda ere aurkeztu beharko da.

Merezimenduen zerrendarik gabe jasotzen diren proposamenak ez dira kontuan hartuko.

3. Aldi berean, proposatutako pertsona edo erakunde hautagai hori laugarren oinarrian jasotakoen artean zein saritarako aurkezten den ere adierazi behar da.

4. Pertsona edo erakunde berak ezingo du erakunde edo pertsona berbera sari baterako baino gehiagorako aurkeztu.

**Seigarrena**

1. Bizkaia Kirolak sariak emateko 2015. urteko edizioko epaimahaia kide hauek osatuko dute:

— Epaimahaiburua: Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako foru departamentuko titularra, eta ordezko legez Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen departamentuko titularra.

— Epaimahaikideak:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolen eta Gazteriaren zuzendaritza nagusiaren titularra, eta ordezko legez Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiaren titularra.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko titularra, eta ordezko legez Bizkaiko Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuko titularra.
- Bizkaiko Kirol Federazioen Elkarteko (AS.FE.DE.BI) presidentea; eta ordezko legez Bizkaiko Kirol Federazioen Elkarteko (AS.FE.DE.BI) zuzendaritza batzako kidea.
- Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) izendatutako ordezkaria; eta ordezko legez, Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) izendatutako beste pertsona bat.

— Idazkaria: Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria, eta ordezko legez Bizkaiko Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuko Administrazio Orokorreko Teknikaria.

b) Premio al Centro Escolar o Asociación de Padres/Madres Se valorarán fundamentalmente parámetros tales como la participación, calidad de la gestión y polideportividad.

c) Premio a la Federación deportiva: Se tendrán en consideración tanto el nivel de actividades como la calidad de gestión, la colaboración en el deporte escolar y los resultados deportivos.

d) Premio a la Trayectoria deportiva: se valorará el historial deportivo de la persona o entidad.

e) Premio a la persona o entidad por su labor en el ámbito del deporte recreación: Se valorará el historial o curriculum de las actividades y actuaciones realizadas en el mundo del deporte, bien por sus logros como deportista veterano/a, o por su labor a favor de la promoción del deporte recreación.

f) Premio a la persona o entidad por su labor en el ámbito del deporte por y para personas con discapacidades: Se valorará el historial o curriculum de las actividades y actuaciones realizadas en el mundo del deporte, bien por sus logros como deportista discapacitado/a, o en favor de la inserción de las personas con discapacidades en el mundo del deporte.

g) Premio a la entidad de la administración local: se valorará la labor realizada a favor del deporte.

h) Premio a la entidad o persona patrocinadora: se valorará fundamentalmente la trayectoria en el patrocinio del deporte en general, con especial hincapié en el apoyo al deporte de base.

**Quinta**

1. Cualquier persona o entidad podrá presentar una o varias candidaturas siempre que presenten su propuesta por escrito o por correo electrónico —kirolak@bizkaia.net— ante la Dirección General de Deporte y Juventud del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, del 10 de marzo al 15 de abril de 2015, ambos inclusive.

2. La propuesta deberá ir acompañada de los méritos por los que entienden que su candidato o candidata es merecedora de premio.

Las propuestas que se reciban sin relación de méritos no serán tenidas en cuenta.

3. Asimismo, en la propuesta deberán indicar al premio, de los indicados en la base cuarta, para el cual proponen a la entidad o persona candidata en cuestión.

4. Una misma entidad o persona no podrá ser propuesta como candidata por una misma persona o entidad para más de un premio.

**Sexta**

1. El jurado para la concesión de los Premios Bizkaia Kirolak, en su edición correspondiente al año 2015, estará compuesto por:

— Presidencia: La persona titular del departamento foral de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia; y como suplente la persona titular del departamento foral de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia.

— Vocales:

- La persona titular de la Dirección General de Deporte y Juventud de la Diputación Foral de Bizkaia; y como suplente, la persona titular de la Dirección General de Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia.
- La persona titular del Servicio de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia; y como suplente, la persona titular del Servicio de Juventud de la Diputación Foral de Bizkaia.
- La persona que ostente la presidencia de la Asociación de Federaciones Deportivas de Bizkaia (AS.FE.DE.BI); y como suplente una o un miembro de la Junta Directiva de la Asociación de Federaciones Deportivas de Bizkaia (AS.FE.DE.BI).
- Una persona designada por Euskadiko Udalen Elkartea (EUDEL), y como suplente otra persona designada por Euskadiko Udalen Elkartea (EUDEL).

— Secretaria: El técnico de administración general del Servicio de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia; y como suplente la Técnica de Administración General del Servicio de Juventud de la Diputación Foral de Bizkaia.

cve: BAO-BOB-2015a019

2. Epaimahaiak, gehiengo soilez hartuko du Bizkaia Kirolak 2015 sariei buruzko erabakia.

Berdinketa gertatuz gero, mahaiburu karguan diharduen pertsonaren botoak erabakiko du.

3 Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta horren aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu.

4 «Bizkaia Kirolak 2015» sarien emakida Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da Iragarki bidez.

AZKEN XEDAPENA

Foru Agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2015eko urtarrilaren 23an.

Kulturako foru diputatua,
MIREN JOSUNE ARIZTONDO AKARREGI

(I-178)

•

2. El jurado decidirá los Premios Bizkaia Kirolak 2015 por mayoría simple.

En caso de empate, decidirá el voto de la persona que ostente el cargo de Presidente/a.

3 La decisión del jurado será inapelable, y contra la misma no cabe recurso alguno.

4 El otorgamiento de los premios «Bizkaia Kirolak 2015» será publicado mediante Anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 23 de enero de 2015.

La diputada foral de Cultura,
MIREN JOSUNE ARIZTONDO AKARREGI

(I-178)

•

**Kulturako foru diputatuaren 341/2015 FORU AGINDUA, urtarrilaren 23koa, 2015. urtean 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten Bizkaiko udalerrietan kirol azpiegiturak berriztatu, eraberritu edo berrerabiltzeko egiten diren inbertsioak finantzatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 178/2014 foru dekretuko Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatzen dituena.**

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 178/2014 foru dekretuaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiak 2015. urtean 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten Bizkaiko udalerrietan kirol azpiegiturak berriztatu, eraberritu edo berrerabiltzeko egiten diren inbertsioak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia egin du (245. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, abenduaren 23koa).

Foru dekretu arautzaile horren 7 eta 8. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eskabideak Eskabideak Kulturako foru diputatu andre txit argiak ebatziko ditu dagokion foru agindu bidez eta epaimahaiaren ebazpenproposamena ikusita, zeinaren osaera foru agindu bidez erabakiko baita.

Artikulu horietan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauko 39.i eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2010 martxoaren 23ko Foru Dekretua, Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudia onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 3ko 172/2013 foru dekretuak eta gainontzeko baterako xedapenek Kulturako Foru Saileko titularrari ematen dizkioten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusatzeen ondorioetarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeko 28 eta 29. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau

XEDATU DUT:

*Lehenengoa:* Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 178/2014 foru dekretuak arauturako diru-laguntzetarako Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatzea. Honako hauek osatuko dute epaimahai hori:

Epaimahaiburu titularra:

— Maitane Leizaola Zulueta and., Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolen eta Gazteriaren zuzendari nagusia.

Ordezko epaimahaiburua:

— Ana María de Castro Rubalcaba anderea, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia.

**ORDEN FORAL de la diputada foral de Cultura 341/2015, de 23 de enero, por la que se designan las personas que componen el Tribunal Calificador de las subvenciones reguladas en el decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 178/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones destinadas a la financiación de inversiones de reforma, renovación o reutilización de infraestructuras deportivas en municipios de Bizkaia de menos de 5.000 habitantes en el ejercicio 2015.**

Mediante decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 178/2014, de 16 de diciembre, la Diputación Foral de Bizkaia ha realizado la convocatoria de subvenciones forales destinadas a la financiación de inversiones de reforma, renovación o reutilización de infraestructuras deportivas en municipios de Bizkaia de menos de 5.000 habitantes en el ejercicio 2015 («Boletín Oficial de Bizkaia» número 245, de 23 de diciembre).

Conforme a lo dispuesto en los artículos 7 y 8 del referido decreto foral regulador, las solicitudes serán resueltas por la Ilma. Sra. Diputada foral de Cultura a través de la correspondiente Orden Foral, a la vista de la propuesta de resolución del Tribunal, cuya composición será determinada mediante orden foral.

Por ello, en base a lo dispuesto en los citados artículos, y habida cuenta de las atribuciones que confieren a la Titular del Departamento Foral de Cultura los artículos 39.i y 67.1 de la Norma Foral 3/87, de 13 de febrero sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo y el decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 172/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Cultura y demás disposiciones concordantes, y a los efectos de posibles causas de abstención o recusación, de acuerdo a lo dispuesto en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo común,

DISPONGO:

*Primero:* Designar las y los miembros del Tribunal Calificador de las subvenciones reguladas en el decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 178/2014, de 16 de diciembre, quedando el mismo compuesto por las siguientes personas:

Presidente titular:

— Doña Maitane Leizaola Zulueta, directora general de Deporte y juventud de la Diputación Foral de Bizkaia.

Presidente suplente:

— Doña Ana María de Castro Rubalcaba, directora general de Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia.

cve: BAO-BOB-2015a019